

# 1999-ko eta 2018-ko sailkapenen arteko ezberdintasun nagusiak


## Sarrera

**Egileak:** Aguirre-Zorzano LA, Estefanía-Fresco R, Fernández-Jiménez A, García-De-La-Fuente AM



Gaixotasun periodontalak eta gaixotasun periinplantarioak eritasun konplexuak dira, non faktore etiologiko anizkoitzetakoak diren.

Horietako batzuk bakterioen plakarekin edo biofilm-arekin erlazionatuta daude, eta bestelako batzuk aldiz, biofilm-aren metaketaren edo pilaketaren independentziaz agertzen dira, azken hauek biofilm-ak aldatu ditzakeelarik.



Gaixotasun periodontal eta periinplentarioak sailkatzeko eskema ezagutzea beharrezkoa da, batez ere, bai klinikoek eta ikertzaileek irizpide berberak eta bateratuak erabil ditzaten.

Azken sailkapena 1999-an finkatu zen. azken 20 urteetan, alde batetik gaixotasun eta egoera berriak agertu dira eta, beste aldetik, gure gaixotasunen ezaguerak handitu egin dira.

Hori dela eta, Periodontziako Amerikako Akademia (*American Academy of Periodontology, AAP*) eta Periodontziako Europako Federazioa (*European Federation of Periodontology, EFP*), sailkapen berria sortzeko asmoz, hasi ziren lanean. Mundu osoko parte-hartzaile adituak bildu ziren eta 2018-ko ekainean sailkapen berria aurkeztu zuten.

Sailkapen horren **helburuak** hurrengoak dira:

- 1.- Klinikoak, pazienteak behar bezala diagnostikatzeko eta tratatzeko gai izatea*
- 2.- Zientzialariak, etiologia, patogenia, historia naturala, eta gaixotasunak eta baldintzak ulertzeko eta beraien ezagutzan sakontzeko gai izatea*

*Caton et al. 2018*



Periodontzian urteetan zehar, lan-talde ezberdinak egon dira gaixotasuna ulertzeko eta sailkatzeko asmoz.

1977 eta 1999 urteen artean, *Periodontziako Amerikako Akademiak (AAP)*, periodontitisak 2 eta 5 talde nagusietan sailkatu zituzten: *Wiebe & Putnins, 2000*

1977	1986	1989	1999
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gaztaroaren Periodontitisa</li> <li>2. Periodontitis kronikoa marginala</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gaztaroaren Periodontitisa:               <ol style="list-style-type: none"> <li>A. Prepuberokoa</li> <li>B. Mugatua</li> <li>C. Orokortua</li> </ol> </li> <li>2. Helduen Periodontitisa</li> <li>3. Gingibo-periodontitis ultzeronekrosiarra</li> <li>4. Periodontitis sendagorrra</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hasiara goiztiarreko periodontitis:               <ol style="list-style-type: none"> <li>A. Prepuberokoa</li> <li>B. Gaztaroaren Periodontitisa</li> <li>C. Periodontitis progresibo arina</li> </ol> </li> <li>2. Helduen Periodontitisa</li> <li>3. Periodontitis ultzeronekrosiarra</li> <li>4. Periodontitis sendagorrra</li> <li>5. Gaixotasun sistemikoari elkartutako periodontitisa</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Periodontitis kronikoa</li> <li>2. Periodontitis agresiboa</li> <li>3. Periodontitis gaixotasun sistemikoen isla gisa</li> <li>4. Gaixotasun Periodontal Nekrosiarrak</li> <li>5. Lesio endodontikoekin lotutako periodontitisa</li> </ol>

1. taula. Periodontitisaren sailkapenak. American Academy of Periodontology

- ▶ **1977:** Gaztaroaren periodontitisa eta Helduen periodontitisa definitzen dira
- ▶ **1986:** Gaztaroaren periodontitisa hirutan sailkatzen da, eta beste bi gaixotasun gehiago gehitzen dira
- ▶ **1989:** Gaixotasun periodontalaren eragin sistemikoa kontuan hartzen da. Ikertzaileek, periodontitisaren aurkezpen klinikoaren aurreratzeko abiadura eta sortzeko adina ezberdinak izan zitezkeela adostu zuten
- ▶ **1993-**ko sailkapena sinplifikatu zuten, eta periodontitisak bi talde nagusitan batu ziren: helduen periodontitisean eta hasiera goiztiarreko periodontitisean
- ▶ **1999-**ko sailkapena finkatu egin zen eta 19 urtez erabilia izan da gaixotasun periodontalak sailkatzeko

*Caton et al. 2018, Wiebe & Putnins 2000*

## 1999-ko Gaixotasun periodontalen sailkapena (laburtua)

1. Gingibitisa
2. Periodontitis Kronikoa
3. Periodontitis Agresiboa
4. Gaixotasun sistemikoekin lotuta dagoen periodontitisa:
  - a) alterazio hematologikoak: hartutako neutropenia, leuzemiak...
  - b) alterazio genetikoak: Down sindromea, Papillon-Lefevre, Histiozitosia...
5. Gaixotasun Periodontal Nekrosiarrak: GUN, PUN
6. Periodontoaren abzesuak (gingibala, periodontala, perikoronaritisa)
7. Lesio endodontikoekin lotutako periodontitisa
8. Garapeneko edo hartutako deformazio eta kondizioak

*Armitage 1999, Aguirre-Zorzano et al 2016*



## 1999-ko eta 2018-ko sailkapenen arteko ezberdintasun nagusiak

- ▶ Osasun periodontala, gingibitisa, periodontitisa, osasun periinplantarioa eta gaixotasun periinplantarioak definitzen dira
- ▶ Periodontitisa hiru talde nagusitan sailkatzen da: periodontitis nekrosiarra, gaixotasun sistemikoen manifestazio bezala, eta periodontitis agresiboa eta kronikoen terminoak desagertzen dira, termino bakarra (periodontitisa) erabiliz (ikusi 2. taula)
- ▶ Periodontitisa Fasetan eta Graduetan sailkatzen da
- ▶ Diabetes mellitus-a eta tabakoaren eragina garrantzitsuak direla onartzen da eta gaixotasunaren Gradu modifikatzaile bihurtzen dira
- ▶ Garapeneko edo hartutako deformazio eta kondizioen artean lau talde nagusi agertzen dira: gaixotasun sistemikoekin lotutako periodontitisak, egoera mukogingibalak, trauma oklusala eta indar oklusal traumatikoak, eta protesiarekin eta hortzekin lotutako faktoreak
- ▶ "Zabalera biologikoa" "*biological width*" terminoa, "Gandor gaineko ehun txertatuak" "*supracrestal attached tissues*" terminora aldatzen da
- ▶ Lehenengo aldiz, gaixotasun periinplantarioak sartzen dira

Caton et al. 2018, Jepsen et al. 2018

### Osasun periodontala eta gaixotasun gingibalak

Osasun gingibal eta periodontala

*Biofilm*-arekin lotutako gingibitisa

*Biofilm*-arekin ez lotutako gaixotasun gingibalak

### Periodontitisa

Gaixotasun periodontal nekrosiarrak

Periodontitisa

Periodontitisa, gaixotasun sistemiko baten manifestazio bezala

### Periodontoari erasaten dioten beste egoerak

Txertatzeko ehun periodontalei erasaten dioten gaixotasun edo egoera sistemikoak

Abzesu periodontalak eta lesio endoperiodontalak

Lesio mukogingibalak

Indar oklusal traumatikoak

Protesi eta hortzarekin lotutako faktoreak

### Gaixotasun periinplantarioak

Osasun periinplantarioa

Mukositis periinplantarioa

Periinplantitisa

Ehun periinplantario bigun eta gogorren gabeziak

2. taula. Gaixotasun periodontal eta periinplantarioen sailkapen berria (AAP & EFP 2018)

Caton et al. 2018



- ▶ Aguirre-Zorzano LA, Estefanía-Fresco R, García-De-La-Fuente AM (2016). Gaixotasun periodontalaren diagnostikoa: oinarrizko kontzeptuak. *OCW-EHU ikastaroa*; [2016/12][eus]; <https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=426>
- ▶ Armitage, G. C. (1999). Development of a classification system for periodontal diseases and conditions. *Annals of periodontology*, **4**, 1-6.
- ▶ Caton, J. G., Armitage, G., Berglundh, T., Chapple, I. L., Jepsen, S., Kornman, K. S., ... & Tonetti, M. S. (2018). A new classification scheme for periodontal and peri-implant diseases and conditions—Introduction and key changes from the 1999 classification. *Journal of periodontology*, **89**, S1-S8.
- ▶ Jepsen, S., Caton, J. G., Albandar, J. M., Bissada, N. F., Bouchard, P., Cortellini, P., ... & Geurs, N. C. (2018). Periodontal manifestations of systemic diseases and developmental and acquired conditions: Consensus report of workgroup 3 of the 2017 World Workshop on the Classification of Periodontal and Peri-Implant Diseases and Conditions. *Journal of clinical periodontology*, **45**, S219-S229.
- ▶ Wiebe, C. B., & Putnins, E. E. (2000). The periodontal disease classification system of the American Academy of Periodontology—an update. *Journal of the canadian dental association*, **66**, 594-599.